

Probintzialismoa

El Mundo del País Vasco, [1992].

Gure herria karlismora eramán nahian dabilta. Hasiak dira Sabin Aranek irekitako askatasuna Probintzialismora itzultzeko asmotan. Euskal Herriko gurdi eder izan diren kurpil eta ballesta, gaurko kamioetako abiaduran izan daitezén. Arerioak hainbeste gorrotatutako "Euskotarren aberria Euskadi da" utzi eta kalkulo berriak egiten. Bere garaiko karlismoaren fijazio nostalgiko hura berreskuratu nahiean jartzen hasiak dira, ez alferrik, atzerako bideak ez baitira gaur ibilgarriak. Venezuelako krioloak badute desegokitasun hau adierazteko gai den esaera jakintsu bat: "Chivo que se devuerve, se esnuca", itzultzen den akerrak garondoa haustatu du Karlismotik Abertzaletasunera egin zen bide ausartak, kuraia, adimena eta kemen handiak eskatu zituen; gerorako errazkeriarik ez zuen utzi, zailtasuna eta sakrifizioa baizik, eta egindakoak egin eta gero arerio itsuaren aurrean errespetagarritzen hasi gara. Eta hau Sabinen Espainiako deskolonizazio bezala, une historikoa geure zentzuan joaten hasi den honetan bertan. Orain "Euskara da euskaldunen hizkuntza" denek ulertzen duten garaian hasi da sortzen artean, eta batez ere erantzunkizun handiena duen taldearen barruan, hizkuntzaganako zabarkeria, utzikeria, politikaganako probintzialismo eta laxismorik negargarriena. Gure etxeko altxorrak geure arteko nori eta zenbat tokatzen zaion kalkuloak egiten hasiak gara, gure herriko kanpoan utziaz, desheredatuta, salduta! Hau da gaur gure herri desorientatu honetan gazteak ikusten eta ikasten hasi direna. Indarkeria dela kausa, diote. Ez dugu indarkeriarik nahi inondik, etxetik gutxiago. Baina ezta Euskal Herriaren saldukeri eta likidaziorik ere. Karlismoa amaitzen ari zenean, nire haurtzaroan bertan, abertzaletasunaren gainezkakoa gazteen eskuetan egon zen. Halaxe izan ginen gauza gerra gaiztoari aurre egiteko. Gaur ere, gure herriko gaztedia ez da probintzialismo baten atzetik abiatuko, etorkizunaren, herriaren burujabetzaren bila baizik.